

V - BESTELAKOAK

SANTA MARIA KATEDRALA FUNDAZIOA

Santa Maria Katedrala Fundazioaren gazte-aterpetxean harrera-zerbitzua emateko prozedura irekizko lizitazioa

1. Erakunde adjudikatzailea: Santa Maria Katedrala Fundazioa.

2. Kontratuaren helburua:

A) Helburuaren deskribapena: Santa Maria Katedrala Fundazioaren gazte-aterpetxean harrera-zerbitzua ematea.

B) Banaketa loteka: ez.

C) Iraupena: urtebete; beste urtebete luzatzeko aukerarekin.

3. Izapidea, prozedura eta adjudikatzeko era.

A) Izapidea: ohikoa

B) Prozedura: irekia

C) Era: ekonomikoki onena den eskaintza, Hainbat adjudikazio-irizpide:

1. Eskaintza ekonomikoa (unitate-prezioak): 60 puntu arte.

Ohiz kanpoko balioak edo balio neurrigabeak dituzten eskaintzatat joko dira, ezaugarrien koadroko "I" atalean zehaztutako prezioak baino baxuagoak badituzte.

2. Ordezkapenak estaltzea: 20 puntu arte.

3. Enpresa lizitatzailleek Berdintasun Plan bat aurkeztea kontratuan: 10 puntu arte

4. Langileen heziketa: 10 puntu arte.

4. Kontratuaren gutxi gorabeherako zenbatekoa:

Kontratuaren balioa, gutxi gorabehera, 186.000,00 eurokoa (BEZ gabe) izan daiteke urtebeterako. Eta beste urtebete luzatzeko aukera dago.

5. Bermeak:

Behin-behinekoa: ez da eskatzen

Behin betikoa: lizitazioaren aurrekontu-oinarriaren ehuneko 5a (BEZ gabe).

6. Kontratistaren berariazko baldintzak:

Kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa: Ikusi ezaugarrien taulako "O" puntua.

7. Dokumentazioa eta informazioa eskuratzea:

Santa Maria Katedrala Fundazioaren bulegoak

Tokia: Vitoria-Gasteizko Aiztogile kalea, 93

Telefonoa eta faxa: 945122160

Edo Kontratugilearen profilean: www.catedralvitoria.eus

8. Eskaintzen aurkezpenak:

A) Epea: ALHAOn lizitazio-iragarkia argitaratzen denetik kontaktzen hasi eta hurrengo 15 egun naturaleko epea izango da.

Eskaintza postaz aurkezten bada, Administrazio Publikoen Kontratuen Lege Orokorraren Arautegiko 80. artikuluan ezarritakoaren arabera egingo da.

B) Aurkeztu beharreko dokumentazioa: ikusi ezaugarrien taula eta orri administratiboak eta teknikoak

C) Aurkezteko tokia: fundazioaren bulegoan, goizeko 09:00etatik eguerdiko 14:00etara. Azken eguna larunbata edo jaieguna balitz, hurrengo egun baliოდunera atzeratuko litzateke.

D) Aldaerak onartzen dira: ez

9. Eskaintzak irekitzea:

“C” gutun-azala proposamenak aurkezteko azken egunetik hasi eta bosgarren egun baliოდunean irekiko da, 13:00etan, fundazioaren bulegoan, “B” gutun-azala ireki ostean.

Formulen bidez ebaluagarri ez diren irizpideen balorazio-txostena egin eta gero, “A” gutun-azala proposamenak aurkezteko epearen azken egunetik hasi eta hamargarren egun baliოდunean irekiko da, 13:00etan, fundazioaren bulegoan.

10. Beste informazio batzuk:

Kontratuak subrogatzeko betebeharra.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko otsailaren 20an

Presidentea

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE